



gizonduz



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

la igualdad te hace más hombre

Sabías que en nuestra Comunidad...

- ... el trabajo doméstico representa el 33% del PIB y sólo es realizado por hombres en un 25%.
- ... son hombres el 72% de las personas con consumo problemático de drogas.
- ... la esperanza de vida de los hombres es siete años inferior a la de las mujeres.
- ... se interponen anualmente ante la Ertzaintza más de 3.000 denuncias de mujeres por malos tratos de sus parejas.
- ... son hombres el 80% de las personas conductoras implicadas en accidentes de tráfico.
- ... los hombres representan el 93% del total de la población reclusa.
- ... son hombres el 58% de las víctimas de los delitos.
- ... sólo un 6% de hombres se acoge a excedencias y reducciones de jornada para el cuidado de personas.

... También está en tu mano cambiar esta realidad.



Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra

Euskal gizonon konpromisoa berdintasunaren aldeko apustu sendoa da. Beharrezkoa da herritar libre, autonomo, zuzen eta zoriontsuagoen gizartea eraikitzeko. Eskutitza Internet bidez sinatu daiteke (www.euskadi.net/gizonduz), bai eta erantsitako txantiloia bete eta Emakundera bidalitz ere.

Nuestro compromiso como hombres vascos es una firme apuesta por la igualdad. La queremos y necesitamos para construir una sociedad integrada por personas más libres, más autónomas, más justas y más felices. La Carta puede ser suscrita, tanto a través de Internet en www.euskadi.net/gizonduz, como cumplimentando la plantilla que se adjunta y remitiéndola a Emakunde.



Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra

Eskutitza hau sinatzen dugun gizonok badakigu gure gizartean ez dagoela berdintasunik emakumeen eta gizonen artean, ez harremanetan eta ez botere-banaketan, eta femeninoa maskulinoaren menpe jartzeko dela. Ondorioz, gizonok hainbat pribilegio dauzkagu: aisialdirako denbora gehiago daukagu; esparru publikoan, politikan nahiz ekonomian botere handiagoa dugu; eta neurri handi batean emakumeek egiten duten etxeko lanaz eta zaintza lanaz baliatzen gara. Aitzitik, gizartea antolatzeke modu honek modu negatiboan eragiten digu, eta gure nortasuna eraikitzeke gizartean eredu izan den tradiziozko gizonen eredu matxistak ez gaitu asetzen, eta gainera, gure izaera garatzeko prozesua baldintzatzen du.

Bidezkoa da egoera aldatzea, emakumeen eskubidea delako, eta gizarte osoaren onerako izango delako, egoera aldatzea onuragarria izango baita gizonentzat ere.

Horregatik, eta sexismoak eragiten dizkigun kalteak gainditzeko asmoz, berdintasuna oinarri duen gizartea eraikitzeke konpromisoa hartuko dugu, banaka nahiz taldean, emakumeek eta gizonen eskubide eta aukera berberak izan ditzagun, eta batzuen eta besteen ekarpenak eta beharrak modu berean balora daitezten. Horretarako **konpromiso hauek hartuko ditugu:**

- Emakumeek sexismoaren aurka egindako aldarrikapenekin bat egingo dugu eta bazterketa sexisten aurka egiten duten borroka oro babestuko dugu, eta bereziki, indarkeria matxista gaitzetsiko. Gainera, jendaurrean eta modu aktiboan gaitzetsiko ditugu halako bazterketa-jarrerak eta ez ditugu onartuko geure inguruan.
- Egoera, esperientzia eta jarrera guztiak haintzat hartuta, berdintasunik gabeko gizarte honi eusten dioten eguneroko balio eta jarrerak berraztertuko ditugu, eta beste gizon batzuei laguntzen saiatuko gara, aldaketa pertsonalen eta gizarte-aldaketen bide honekin bat egin dezaten.
- Geure burua eta besteena zaintzeaz arduratuko gara, pertsonen osasunaren eta segurtasunaren aurkako arrisku-jarrerak bultzatu ordez.
- Etxeko lanak eta familiakoak zaintzeko lanak geuretzat hartuko ditugu, baita gure izaera eraikitzeke bide gisa ere, eta bereziki, zaintzeko baimen, eszedentzia eta lanaldi murrizketez gozatuko dugu.
- Askotariko sexualitatea lortzearen alde egingo dugu, mitorik gabe, konparaziorik egin gabe eta ezer ezarri gabe, elkarrekin gozatzu eta elkarri plazera emanez. Sexualitate librearen eta sexu-aurkera zein sexu-orientazio librearen aurkako jarrera ororen aurka egingo dugu.
- Geure nortasuna libreki eraikitzen saiatuko gara, rolak eta estereotipoak alde batera utzita, geure emozioak eta sentimenduak osorik garatzeko.
- Indarkeria ez dugu arazoak konpontzeko zilegizko tresna gisa hartuko. Baztertu egingo dugu eta bide baketsuak eta elkarriketa erabiliko ditugu egoera korapilatsuak konpontzeko.

Euskal gizonon konpromisoa berdintasunaren aldeko apustu sendoa da. Beharrezkoa da herritar libre, autonomo, zuzen eta zoriontsuagoen gizartea eraikitzeke.



Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres

Los hombres que firmamos esta Carta somos conscientes de que vivimos en una sociedad en la que existe una manifiesta desigualdad en las relaciones y en el reparto del poder entre mujeres y hombres y en la que lo femenino se subordina a lo masculino. Como consecuencia de ello, los hombres tenemos determinados privilegios: disfrutamos de más tiempo de ocio, ocupamos la mayor parte del espacio público y del poder político y económico y nos beneficiamos del trabajo doméstico y de cuidado realizado muy mayoritariamente por las mujeres. Sin embargo, esta forma de organización social también nos afecta negativamente y no nos satisface el modelo de hombre tradicional y machista que hemos tenido como referente social en la construcción de nuestra identidad y que condiciona el desarrollo integral de nuestra personalidad.

Consideramos que esta situación debe cambiar por justicia, porque es un derecho de las mujeres, y porque será beneficioso para el conjunto de nuestra sociedad, ya que con el cambio los hombres también ganamos.

Es por ello que, con el deseo de superar los daños que el sexismo ocasiona, asumimos el compromiso personal y colectivo de participar en la construcción de una sociedad igualitaria, en la que mujeres y hombres gocemos de los mismos derechos y oportunidades y en la que las aportaciones y necesidades de unas y otros sean valoradas por igual. Para ello, **nos comprometemos a:**

- Compartir las justas reivindicaciones de las mujeres contra el sexismo y apoyar su lucha contra todo tipo de discriminación sexista y, en especial, manifestar nuestro frontal rechazo a la violencia machista, haciendo pública y activa denuncia de tales conductas discriminatorias y no consintiéndolas en nuestro entorno.
- Replantearnos desde nuestras diversas realidades, experiencias y actitudes los valores y comportamientos cotidianos que sostienen esta sociedad desigual y animar y acompañar a otros hombres en este camino de cambios personales y sociales.
- Valorar nuestro propio cuidado y el de las demás personas, en lugar de fomentar actitudes de riesgo que van en contra de la salud y de la seguridad personal.
- Asumir de forma igualitaria el trabajo doméstico y de cuidado de otras personas como parte no sólo de nuestra responsabilidad, sino de nuestro crecimiento como individuos y, en particular, a hacer uso de los permisos, excedencias y reducciones de jornada para el cuidado.
- Avanzar hacia una sexualidad diversa, sin mitos, sin comparaciones ni imposiciones, desde el disfrute y el placer compartido, y oponernos a toda conducta que atente contra el libre ejercicio de la sexualidad, incluida la libertad de opción y orientación sexual.
- Intentar construir nuestra identidad personal libremente, al margen de roles y estereotipos, así como desarrollar de forma plena nuestra vida emocional y afectiva.
- Desterrar el uso y la legitimación de la violencia como forma de solucionar los problemas y buscar formas pacíficas y dialogadas de abordar y resolver las situaciones conflictivas que nos encontremos.

Nuestro compromiso como hombres vascos es una firme apuesta por la igualdad. La queremos y necesitamos para construir una sociedad integrada por personas más libres, más autónomas, más justas y más felices.

Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres

ATXIKITZEKO ORRIA / FORMULARIO DE ADHESIÓN

Identifikazioa (NAN) / Identificación (DNI):

Izena eta Abizenak / Nombre y Apellidos:

Jaiotako urtea / Año de Nacimiento:

Jaiotako lekua / Lugar de nacimiento:

Bizilekua / Lugar de Residencia:

Helbide elektronikoa / E-Mail:

Sinadura / Firma:

Mesedez, bete orria letra argiz eta bidali Emakundera:
Por favor, rellenar con letra clara y remitir a Emakunde:

Emakunde/Euskal Erakunde
Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer
Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz





gizonduz

berdintasunak gizonago egiten zaitu



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



2008ko iraila



Berdintasunaren alde gizonak inplikatzeko bultzatu nahi du Emakundek

Emakunde impulsa la implicación de los hombres a favor de la igualdad



Berdintasunaren aldeko euskal gizonen Eskutitzaren sinadura-ekitaldia.

2008ko apirilaren 23an Ajuria Enean jendaurrean egindako ekitaldi batean Euskal Gizonen Eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra eskutitza sinatu zuten Juan José Ibarretxe lehendakariak eta euskal gizarteko hainbat eremutako beste 27 gizonak. Hasierako urratsa izan zen, zeren eta gutxienez 10.000 euskal gizonen ekimen horrekin bat egin dezaten lortu nahi da-eta.

Eskutitza sinatzea Gizonduz-en aurreikusitako neurri bat da. Gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko ekimena da Gizonduz, Emakundek eragindakoa eta lehendakaria buru duena.

Gizonduz ekimenaren barruan hainbat helburu eta neurri ezarri dira, bi ideietan oinarrituta: batetik, sentikortasuna eta trebakuntza pentsamoldea eta portaera aldatzeko giltza direla, eta, bestetik, gizonen berriaz zuzendutako neurriak proposatzeak zuzentasun eta berdintasun handiagoa izango duen gizarte baten aldeko haien konpromisoa errazten duela.

Gizonduz ekimenaren helburuen artean daude: berdintasunaren alde sentikortutako gizonen kopurua handitzea, berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea, eta gizonen etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna handitzea.


La sensibilización y la formación son la llave para el cambio de mentalidad.


En un acto público celebrado en Ajuria Enea el 23 de abril de 2008, el Lehendakari Juan José Ibarretxe junto con otros 27 hombres de diferentes ámbitos de la sociedad vasca suscribieron la *Carta de los Hombres Vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres*, dando inicio a un proceso con el que se pretende lograr que, al menos, 10.000 hombres vascos se adhieran a la misma.

La firma de la Carta es una de las medidas previstas en Gizonduz, que es una iniciativa impulsada por Emakunde y liderada por el Lehendakari para promover la concienciación, participación e implicación de los hombres a favor de la igualdad de sexos en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En el marco de Gizonduz, se plantean un conjunto de objetivos y medidas, bajo la premisa de que la sensibilización y la formación son la llave para el cambio de mentalidad y de comportamiento y que plantear medidas específicas para los hombres facilitará su compromiso en la construcción de una sociedad más justa e igualitaria.

Los objetivos de Gizonduz son incrementar el número de hombres sensibilizados a favor de la igualdad de mujeres y hombres; incrementar el número de hombres con formación en materia de igualdad de mujeres y hombres; y aumentar la corresponsabilidad de los hombres en el trabajo doméstico y de cuidado de las personas.



Gizarte osoaren onerako

Emakunde emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko estrategiak prestatzen eta horiek gizartean txertatzen diharduenaz, beharrezko ikusi du beti gizartea osatzen duten pieza guztiak sakonki ezagutzea. Horregatik, orain 20 urte sortu zenez geroztik, gizonengana ere hurbildu da: maskulinitate motak aztertu ditu eta berdintasun-plan guztietan eta ekintza estrategiko guztietan kontuan hartu ditu gizonak.

Gure herriko berdintasun-politikan lehentasuneko da emakumearen autonomia pertsonala bultzatzea eta emakumeen estatus sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea. Horren haritik, berdintasunaren alde gizonak inplika daitezten sustatzeko neurriak beharrezko osagarritzat jotzen dira, helburu hori lortzeko ezinbestekotzat.

Gizonduz Ekimena une historiko eta ingurune egokian sortu da. Urte askotan instituzioetan, ikerketa foroetan eta gizarte-mugimenduetan egindako lanari esker, berdintasunari buruz gizonak duten jarrera eta erlazioa azken aldian indartzen ari da, olatu bat bailitza. Gutxi aztertutako gaia zenean ere, maskulinitate eredu berriei buruz hitz egin genuen Emakunde antolatutako "Gizonak Giza Antolamendu Berriaren Aurrean" kongresuan (Donostia, 2001). Gaia berriz ere indartsu plazaratu zen iaz, nazioarteko Sare kongresuan, "Maskulinitatea eta Eguneroko Bizitza". Maskulinitate-eredu tradizionalak emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzan duten eragina aztertu genuen.

Gizarteak gero eta hobeto daki beharrezkoa dela gizonen ekarpena eta parte hartzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako borrokan. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ez da emakumeen arazoa, gizarte osoarena da; hori ere gero eta hobeto ulertzen dugu. Izan ere, berdintasuneko gizarte bat lortzen badugu, denontzat izango da onuragarri: nola emakumeentzat hala gizonentzat. Ahalegina egin behar dugu emakumei eta gizoni berdintasuna pertsona guztien onerako dela erakusteko, gizarte osoarentzat onuragarri dela erakusteko.



Izaskun Moyua.
Emakundeko zuzendaria.

En beneficio de la sociedad en su conjunto


En su labor de confeccionar y aplicar en la sociedad estrategias de igualdad entre mujeres y hombres, Emakunde ha visto siempre necesario conocer profundamente todas las piezas que la conforman, por eso, desde su creación hace casi 20 años, ha dado pasos también hacia los hombres, investigando las diferentes masculinidades, incorporando a los hombres en cada uno de sus planes de igualdad y en cada una de sus acciones estratégicas.

Nuestra prioridad en las políticas de igualdad de nuestro país es promover la autonomía personal y el fortalecimiento de la posición social, económica y política de las mujeres y, en ese sentido, las medidas para fomentar la implicación de los hombres a favor de la igualdad se plantean como un complemento necesario y no al margen de la consecución de dicho objetivo.

La iniciativa Gizonduz ha nacido en un entorno y en un momento histórico favorable. La posición de los hombres y su relación con la igualdad está cogiendo la fuerza de una ola en los últimos tiempos, debido a que existe una labor anterior de muchos años realizada desde las instituciones, desde los foros de investigación y desde los movimientos sociales. Cuando era un tema aún poco explorado, desde Emakunde ya habíamos de nuevos modelos de masculinidades en el congreso internacional "Los hombres ante el nuevo orden social" que organizamos el año 2001 en Donostia. Y el tema volvió a la palestra con fuerza otra vez, con la celebración del congreso internacional SARE bajo el título "Masculinidad y vida cotidiana", que celebramos el año pasado, y en el que analizamos la incidencia de los modelos tradicionales de masculinidad en la vida cotidiana de mujeres y hombres.

La sociedad es cada vez más consciente de la necesidad de la participación activa y la aportación de los hombres a la lucha por la igualdad entre mujeres y hombres. Cada vez se comprende mejor que la desigualdad entre mujeres y hombres no es un problema de las mujeres, sino de toda la sociedad. Entre otras cosas, porque la consecución de una sociedad igualitaria traerá consecuencias positivas tanto para mujeres como para hombres. Hay que hacer un esfuerzo por demostrar a mujeres y hombres que la igualdad beneficia a todas las personas, que beneficia a toda la sociedad en su conjunto.

Elkarrizketa



Ander Bergara:
"Ez da berdintasunik egongo, gizonak inplikatut gabe"

Ander Bergarak hamabi urte daramatza Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lanean. Erakundeko aholkularia eta Gizonduzeko koordinatzailea da egun.

Nola sortu zen Gizonduz?

Berdintasunerako IV. Planean jasota geratu zen beharrezkoa dela euskal administrazioek neurriak hartzea, hain zuzen ere, sexuen arteko berdintasuna lortzeko gizonen konpromiso handiagoa har dezaten sustatzeko. Hala ere, lehendakariak berak emandako bultzada ezinbestekoa izan da Gizonduz sortzeko, aspaldi adierazi baitzion Emakunderi honelako ekimen bat berak gidatzeko nahia.

Beren-beregi gizonentzako ekimena da. Zergatik?

Azken urteetan izugarri aldatu da gizartean emakumeek izan duten zeregina, eta tradizioz gizonentzako lantzat jo izan direnetan gero eta gehiago sartzen ari dira. Hala ere, prozesu honetan gizonak ez dituzte bere gain hartu -ez modu esanguratsuan, behintzat- etxeko lanak eta zaintza lanak, ez eta

tradizioz emakumeen lantzat jo izan diren egitekoak eta baloreak ere. Emakumeek egindako aldaketa ez da nahikoa benetako berdintasuna lortzeko, berdintasuna ez baita posible herritarren %50 prozesu honetatik kanpo geratzen bada.

Nola txertatzen da ekimen hau Emakundeko gainerako programekin?

Beren-beregi gizonentzako ekimena da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko planteamendu orokor eta integral batean kokatzen da, non lehentasuneko helburua den emakumeen autonomia pertsonala sustatzea eta gizartean, ekonomian eta politikan duten lekua indartzea. Horren haritik, berdintasunaren bidean gizonak inplikatut daitezten sustatzeko neurriak beharrezko osagarritzat jotzen dira, eta ez helburu hori lortzeko trabatzen ez eta horretara bideratutako baliabideen murrizketatzen ere. Beste modu batera esanda, gizonekin lan eginez emakumeek gizartean duten lekua hobetu nahi da, mundu zuzenago eta aukeraberdintasun handiagoko mundu bat egin, non giza garapenerako aukerak indartuko baitiren emakumeentzat nahiz gizonentzat.

Zer irabazten dute gizonak berdintasunarekin?

Gure gizartea sexista da, gizonok kolektibo bezala pibilegio batzuk ditugu: denbora gehiago dugu aisialdirako, espazio publikoaren eta botere politiko eta ekonomikoaren zati handiena hartzen dugu, eta hobeto bizi gara gehienbat emakumeek egiten dituzten etxeko lanen eta zaintza-lanen kontura. Baina kalte ere egiten digu gizartea modu honetan antolatuta egoteak, hain zuzen ere, eginkizunak sexuaren arabera hertsiki bereiztean oinarritzen den antolaketak. Oro har, gizonok bizi-itxaropen txikiagoa dugu, gure buruaz beste egiteko joera handiagoa dugu, espetxeratuak izateko, drogamenpekotasunak jasateko, bide-istripuak izateko, lan-istripu larrienak izateko, indarkeriaz hiltzeko eta abar. Gainera, gure potentzialitate eta gaitasunak ga-

ratzea oztopatzen du, ugalkortasun eta nahitasunekin lotutakoak, bereziki.

Zalantza izpirik gabe, berdintasunean interesik handiena emakumeek dute, beraiek baitira sexismoaren ondorio negatiboak gordinen pairatzen dituztenak. Baina berdintasuneko gizarte bat lortzeko interesa duten bakarrak ez dira: berdintasuna lortzeko pertsona guztiei eragiten die, emakumei nahiz gizoni, eta denontzat izan daiteke onuragarri.

Zer berrikuntza dakar Gizonduz-ek?

Berdintasunerako bidean gizonak inplikatzea beharrezkoa da; oro har, guztiok bat gatz horrekin; hori nola gauzatu, ordea, ez dakigu oso ondo. Horrek argitzen du -neurri batean, bederen- nazioartean gobernuek ekimen sendorik ez edukitzea alor honetan. Horren haritik, Eusko Jaurlaritzak ekarpen aitzindaria egin dio alor honi: ekimenak balio erantsia du, bide-erakusle izan baita oso gutxi aztertutako alderdi batean; helburu espezifiko eta neurgarri batzuen inguruan eta garatu beharreko neurri zehatz batzuen inguruan egituratu du esku-hartzea; arduradunak ditu; egutegia ere badago; eta azkenik, adierazleak daude segimendua eta ebaluazioa egiteko.

Zer lortu nahi da ekimen honekin?

Berdintasunaren aldeko bidean gizonen masa kritiko bat lortzea gure erkidegoan. Horiek tradiziozko maskulinitatea zalantzan jarri beharko dute eta aukera-berdintasunera gehiago hurbiltzen diren ereduaren alde egin beharko dute, beste gizon batzuentzat eta, bereziki, datozen belaunaldientzat erreferente izan daitezten. Luze gabe Euskadi Estatuan erreferente bihurtu nahi dugu, gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan ematen duten denborari dagokionez eta berdintasunaren alde jendarean konprometitu diren eta alor honetako berariazko prestakuntza eta sentsibilizazio prozesuetan parte hartu duten gizon kopuruari dagokionez.

Gizonduz: Una aportación pionera del Gobierno Vasco

La Administración Vasca lleva años en la vanguardia de las políticas de igualdad, cuya aportación más significativa y visible es la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres aprobada en 2005 por el Parlamento Vasco, ley pionera y referente fundamental en la materia, cuyo desarrollo es una de las prioridades del Gobierno Vasco.

Lo realizado es mucho, pero no suficiente. La incorporación generalizada de las mujeres al mercado laboral, su participación en todos los niveles educativos, su mayor acceso a la formación, a la cultura y a los ámbitos de toma de decisiones, están generando unos cambios favorables para el avance en el camino hacia una sociedad más justa e igualitaria. Sin embargo, esta importante transformación del papel de las mujeres en la sociedad y su creciente incorporación a ámbitos tradicionalmente considerados como masculinos, no se está viendo acompañada por una asunción significativa de los hombres del trabajo reproductivo ni del resto de funciones y valores tradicionalmente considerados como femeninos, y no basta el cambio de las mujeres para conseguir la igualdad real, ni son ellas las únicas interesadas la consecución de una sociedad más igualitaria. El logro de la igualdad es un proceso que afecta a todas las personas, mujeres y hombres, y a todas puede beneficiar.

En este contexto, Gizonduz se plantea como una aportación pionera del Gobierno Vasco a esta cuestión, una iniciativa que tiene el valor añadido que supo-

ne abrir camino en una vertiente escasamente explorada, a través de una intervención estructurada en torno a unos objetivos específicos y mensurables y a unas medidas concretas a desarrollar, con sus responsables y su calendario y con un conjunto de indicadores para su seguimiento y evaluación.

La iniciativa consta de un total de 19 medidas, tales como un Congreso internacional sobre masculinidad, campañas de sensibilización dirigidas a hombres, subvenciones para talleres y grupos de hombres, elaborar y difundir la carta de los hombres vascos, poner en marcha programas de sensibilización y formación específicos, crear en Euskadi.net un espacio web especializado, entregar un kit de sensibilización para padres, ampliar los permisos de paternidad y para el cuidado de personas a los trabajadores de la Administración de la CAPV y promover que éstos se apliquen en el resto de instituciones públicas y en el sector privado, etc.

A través de estas medidas se pretende conseguir en nuestra Comunidad una masa crítica de hombres implicados en pro de la igualdad que cuestionen la masculinidad tradicional y apuesten por modelos más igualitarios que sirvan de referente para otros hombres y, sobre todo, para las siguientes generaciones, de modo que en un futuro próxi-

mo Euskadi sea un referente en el Estado y en el ámbito internacional en cuanto al tiempo dedicado por los hombres al trabajo doméstico y de cuidado, así como respecto del número de hombres que se han comprometido públicamente a favor de la igualdad y que han participado en procesos de sensibilización y formación específicos en esta materia.




Gizonduz-en funtsezko neurriak


- Maskulintasunari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko batzarra antolatzea.
- Sexuen arteko berdintasunaren esparruan gizonen berriaz zuzendutako sentikortze-kanpainak egitea.
- Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak eta tailerrak sustatzeko diru-laguntzak ematea.
- Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen eskutitza egitea eta zabaltzea.
- Euskadi.net-en web gune espezializatua sortzea.
- Gizonentzako berriazko sentikortze-programa eta prestakuntza-programa martxan jartzea.
- Aitei, seme-alabak jaiotzen direnean, sentikortze-materialak ematea.
- Ekintza positiboak aurrera eramatea, EAEko Administrazioak eta unibertsitateek antolatutako trebakuntza-ikastaroetara gizonak erakartzeko.
- EAEko langileei erditzeko prestakuntza-ikastaroetara bertaratzeko baimena ematea (amarenarekin bateragarria) eta aitatasun-baimena, erditze-baimena eta senideak zaintzeko baimena hedatzea, eta gainerako erakunde publikoetan aipatu baimenak sektore pribatuan ezartzea sustatzea.



Gizonduz-en helburu nagusiak

- Berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeriaren aurkako euskal gizonen kartari 10.000 gizon atxikitzea.
- Berriazko sentikortze-programa batean 1.000 gizonen parte hartzea.
- Berriazko trebakuntza-programa batean 100 gizonen parte hartzea.
- EAEko Administrazioak eta unibertsitateek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz antolatutako sentikortze eta prestakuntza jardueretan parte hartzaile guztien artean gizonen dagokien ehunekoa bikoiztea (2006an %8koa izan zen).
- Bikotekidearekin amatasun/aitatasun baimena partekatu duten gizonen ehunekoa bikoiztea (2006an %3,5koa izan zen).
- Pertsonak zaintzearren lanaldia murriztu eta eszedentzia hartzen dutenen artean gizonen dagokien ehunekoa %10era igotzea (2006an %6,1koa izan zen).
- Gizonen etxeko lanei eta zaintza-lanei eskaintako denbora %20 handitzea (2003an 01:32 ordukoa izan zen).

www.euskadi.net/gizonduz


gizonduz


Egun indarrean dagoen Norberaren Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa betez, Emakundek, Atxikitze Orrian agertzen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren fitxategi automatizatuan sartuko direla jakinarazten dizu. Nahi izanez gero, datuak aztertze, zuzentze, kitatzeko eta aurkartzeko eskubidea erabili ahal izango duzu, Legeak ezartzen duen moduan, Emakunde-k posta helbidera idazki bat bidaliz.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal vigente en la actualidad, Emakunde/ Instituto Vasco de la Mujer le informa que sus datos personales recogidos en el Formulario de Adhesión, van a ser incorporados en ficheros automatizados titularidad del Gobierno Vasco. Si lo desea, puede ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, enviando un escrito a la dirección postal de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.